

SEGMENTAZIOA

NORENTZAT dago bideratuta gure proiektua?

MERKATUAREN- AZTERKETA

Merkatu inkesta bat eraman genuen aurrera proiektuarekin hasi baino lehen eta bertatik atera ditugun ondorioa nagusienak gure erabiltzaileen merkatu segmentua definitzen lagundu digute: batez ere jende gaztea erabiliko duela jaietan eta leku puntualetan jartzea ere komenigarria izango zela, adibidez musika zein kirol ekitaldietan.

BEZERO TALDEAK

Gure bezeroak bi taldeetan banatzen dira:

1. **ERABILTZAILEAK:** Talde honetan, segmentu nagusia batez ere jaietan ibiltzen den jendea da (16-35) . Bereziki, haien edaria plastikozko/beirazko edalontzi eta botilak erabiltzen dituztenentzako pentsatuta dago gure proiektua.

--- Segmentuaren ezaugarriak:

- Demografikoa: 16-35 urte bitarteko jendea
- Geografikoa: Uribe kostako jaietan jartzen hasiko gara, beraz inguru honetan bizi den jendeari zuzenduta dago.
- Aisialdi ohiturak: jaietan txosnetan zein tabernetatik kanpo biltzen den jendea alde batetik doan jendeari zuzenduta dago.
- Sozioekonomikoa: gure kontainerra jarrita dagoen lekuetan ibiltzen den jende mota maila sozioekonomikoa antzekoa izango du.

2. EKITALDIAREN ANTOLATZAILE ETA ARDURADUNAK.

Jaien kasuan Udaletxeak eta ekitaldien kasuan bertako antolatzaileak kontsideratu behar ditugu ere bezero.